

## “IRAKASKUNTZAN ETA IKERKETAN LAGUNTZEKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIAK (MEKANIKA)” DAGOKION LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

### · OPOSIZIO FASEKO BEHIN BEHINEKO EMAITZAK · MEREZIMENDUEK AURKEZTEKO EPEA

2016ko maiatzaren 18an egindako bileran “Irakaskuntza eta Ikerketan Laguntzeko maila ertaineko teknikariak (Mekanika)” lan poltsa sortzeko hautaketa prozesuko epaimahaiak, aipatutako hautaketa prozesuko ariketa bakarreko probak ebaluatu ditu, eta deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakia), epaimahai honek honako erabaki hauek hartu ditu:

**Lehenengoa.**- “Irakaskuntza eta Ikerketan Laguntzeko maila ertaineko teknikariak (Mekanika)” lan poltsa sortzeko hautaketa prozesuaren oposizio fasearen behin behineko emaitzak ezartzea. Lehiakideek emaitzak lan-eskaintzen atarian kontsultatu ditzakete.

**Bigarrena** .- 5 lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaizkio, jakinarazpenotarako helbidea honako hau izanik, Bizkaiko campusean, Pertsonalaren gerenteordetza, AZPren zerbitzua, Hautaketa eta Hornikuntza (Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa).

Horren arabera erreklamazioa egin behar dutenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dute erreklamazioarekin batera, hurrengo puntuan zehaztu bezala.

**Hirugarrena.**- Deialdiaren seigarren oinarriko 1. atalean jasotakoarekin bat, oposizio fasea gainditu dutenek, hirugarren oinarriko 3 puntuan azaldutako eran merezimenduak aurkeztu behar izango dituzte. Dokumentazio hori aurkezteko epea, 5 lanegunekoa izango da, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta.

Gogoraztea, hizkuntza betebeharrak egiaztatzeko edo antzeko dokumentuak aurkezteko epea euskara probaren ariketa idatzia egingo deneko datara arte luzatuko dela, berori ere barne (6.2 oinarria, in fine).

Bilbon, 2016ko maiatzaren 18an

Epaimahiko idazkaria



Ainhoa Celaya Egüen